

A young girl with long brown hair, wearing a pink headscarf with white polka dots, a pink jacket, and a red turtleneck, is looking intently at a rooster inside a glass display case. She is wearing a necklace with large white beads. To her right, another girl in a white t-shirt with a drawing is holding a yellow object. In the background, other children are visible, some in colorful costumes. The scene appears to be at a fair or festival.

# Eguen Zuri girotsua

# drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 165. alea 2009ko otsaila



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1.

943 17 93 50.

**E-MAILA:**

drogeten@gmail.com

**ERREDAKZIO TALDEA:**Estibalitz González,  
Asier Ibaibarriaga,  
Alazne Aiestaran,  
Justo Azagirre,  
Pello Mugarza  
eta Dorleta Vidal.**KOORDINAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**LAGUNTZAILEAK:**Piedi Eizagirre, Patxi Lopez,  
Igone Amesti, Ane Saénz  
eta Higinia Solozabal.**AZALEKO ARGAZKIA:**

Estibalitz Gonzalez

**ARGAZKIAK:**Alazne Aiestaran,  
Pello Mugarza  
Dorleta Vidal,  
eta Asier Ibaibarriaga**PUBLIZITATEA:**Arantzi Perosanz  
(61 0448079).**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**Ekaitz eta Aritz Muñoz eta  
Jon Arano.**TIRADA:**

2.240 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako iritzien  
erantzukizunik.*

# Esamoldeak...

*...Higinia Solozabalek batuta*

## “Animuek erosten, deuketen diru dana enpliauko neuke”

# Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....	4		
Artarrai Mendi Taldea			
ELKARRIZKETA .....	5-7		
Rosana Macieira			
MALLABIAN ZER? .....	8-9		
Euskararen erabilera plana			
ELKARRIZKETA .....	10-11		
Yolanda Arrieta			
MOTZEAN.....	12-17		
Bertako Bilduma / Berbalagun			
ERMUAN ZER? .....	18		
Juan Torres Lehiaketa			
ERMUAN ZER? .....	19		
Inauteriak			
		BOTEPRONTOA .....	
		20	
		Nor da Julián Núñez?	
		KIROLZALE .....	21
		Ermuko saskibaloia taldea	
		ANTZINAKOAK.....	22
		Ermua eta Mallabiko argazkiak	
		SALEROSKETAK .....	23
		Saldu, erosi edo agurtu	
		IRITZIA .....	24
		Zergatik zeloak?	
		KALEKO INKESTA .....	25
		Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak	
		AGENDA .....	26
		Martxoko agenda	

**ERMUKO  
UDALA****MALLABIKO  
UDALA****EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaBizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia**Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak,  
Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak diruz  
lagundutako aldizkaria**

## Artarrai Mendi Taldea

**Hirurehun bazkide inguru dituen talde hau, 70eko hamar-kadan sortu zen. Urtean 40 ekitaldi baino gehiago antolatzen dituzte eta euren helburua Euskal Herriko tokirik ederrenak ezagutzea da, besteak beste.**



### - Zein urtetan sortu zen taldea?

Artarrai 70eko hamarkadan sortu zen, baina urte gutxi batzuk geroago sute batek erre egin zuen taldearen egoitza eta bertan zegoen material zein informazio guztia. Horren ondorioz Artarrai desagertu egin zen, 80ko hamarkadan beste mendizale batzuek taldea berpiztea erabaki zuten arte.

### - Zenbat kide zarete?

Orain adin guztietako 297 kide gara eta egunez egun bazkide gehiago ditugu.

### - Zeintzuk dira zuen helburuak?

Herritarrei mendi giroan inguruneaz eta aisiaz gozatzeko aukera eskaintzea eta bide batez Euskal Herriko eta inguruetako tokirik ederrenak

ezagutu eta primeran pasatzea. Horrez gain, mendiko kirol ezberdinetan jardutea taldeko giro paregabean.

### - Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean behin biltzen gara, ostegunetan, 19:30-20:30 bitartean udal liburutegiaren gainean dugun egoitzan (Teresa Murga ikastetxean).

### - Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Denetarik egiten dugu eta berrogei ekintzatik gorako egutegia dugu aurtentzen ere, hilean hiruzpalau. Mendi irteera eta ibilbideak (inguruan eta Pirinioetan), kainoien jaitsierak, eski irteerak, BTT, argazki emanaldiak,

ikastaroak (eskalada, mendiko neguko teknikak, GPS...) eta abar. Bestalde bazkideei liburu, mapa eta mendiko materialaren mailegu zerbitzua eskaintzen diegu (pioletak, kranpoiak, dendak, sokak...) eta nahi duenari baita federatzeko aukera eman ere.

### - Zuekin harremanetan jartzeko?

Modu ezberdinak daude: bilera egunetan egoitzara etorri, 638050634 telefonora deituz edo helbide elektronikoko bidez artarrai@euskalnet.net. Bestalde informazio gehiago nahi izanez gero sarean [www.artarrai.com](http://www.artarrai.com) web orria eta [www.artarrai.blogspot.com](http://www.artarrai.blogspot.com) blog-a ditugu.

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40  
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63  
Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOTEGIA**

CERYECERIA  
NHEH

**ZYTik**

OTARTEKO eta  
INPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna



Rosana Macieira, 'Erotik' sex-shopeko jabea:

**“Gauza askotarako ez gaude prest oraindik”**

Hogeita bost urteko ermuar honek sexu-artikuluei eskainitako denda zabaldu zuen Eibarren abenduaren hasieran. Balantze positiboa egiten duen arren, oraindik ere gaia ez dela naturaltasun osoz jorratzen aitortzen du “nik beste liga batean jokatzeko dudala uste dut. Niretzat dena da naturala, eta bezeroei hori transmititzen ahalegintzen naiz”.

e|karrizketa



**- Zergatik pentsatu zenuen sex-shopa zabaltea?**

Ba nik neuk horrelako produktuak kontsumitzen ditudalako, ez bakarrik bibratzaileak, labaingarriak ere, esaterako, eta nire beharrak asetzera zen nire lehenengo helburua. Horiek erosteko Bilbora edo Donostiara joan behar nintzen edo Interneten erosi. Orduan zerbait egin behar zela erabaki nuen. Debegesara joan nintzen, bideragarritasun plana egin zidaten eta bideragarria zela esan zidaten. Bankuak ere, aurrera egiteko esan zidan eta honetan hasi nintzen.

**- Zer dela eta Eibarren, Ermukoa izanda?**

Ermuarra naiz eta denda Ermuan zabaldu izana gustatuko litzaidake, baina Eibarren zabaltea erabaki nuen, laster 'Eibar Komertziala' egitasmoa gauzatu delako. Batek daki, agian aurrerago animatuko naiz Ermuan ere denda zabalzen.

**- Inguruetan ez dago horrelakorik?**

Ez, 40 kilometroko itzul-inguruan ez dago sex-shopik. Durangon kondoi-denda dago eta bibratzaile batzuk baditu, baina ez dago espezializatua, beraz, ez da nahikoa.

**- Zein da jendearen jarraia sexu-jostailuen aurrean**

**orokorrean?**

Adin eta sexuen arabera banatuko nituzke jarrerak. Gehien kontsumitzen dutenak 30 urtetik gorako emakumeak dira. Gazteagoak direnean, euren bikotekideekin jolastu nahi dute asko jota, ez sexu-jostailuekin. Baina 30-35 urtetik gora, beste behar batzuk dituzte, euren bikotekideekin ez dutelako jadanik berdin gozatzena...

**- Eta gizonetakoak?**

Gizonei askoz ere gehiago kostatzen zaie, adin guztietan. Hogeita bost urterekin agian euren bikotekideentzat zerbait eros dezakete, baina eurentzat inoiz ez. Gero, bikotekideak probatu duenean, animatu egiten dira, baina 30 edo 40 urte baino gehiago dituztenean. Ia hamarkada bat pasa behar izaten da. Gainera, mutil batek saldu behar die artikulua: mutil batek aurretik probatu behar izan du, ona dela ziurtatu eta orduan animatzen dira. Horretarako, nire senarraren laguntza dut, bera poz-pozik dago honekin!

**- Berari ere horrelako produktuak gustatzen zaizkio?**

Bai, ni ezagutzen nauenetik, aurretik ez. Zazpi urte daramagu elkarrekin eta denbora honetan denetarik ikusi behar izan du. Ni oso



gaztea nintzenean hasi nintzen sexu-jostailuak erabiltzen, eta 16 urterekin 3 edo 4 bibratzaile nituen. Mundu honek asko erakartzen nau. Orain dela gutxi, Donostiako ExpoErotikus azokara joan nintzen eta bertan, ondo pasatzeaz gain, nire produktuak ezagutzera eman eta saltzeko aukera izan nuen.

**- Gai honetan beste herrialde batzuekin parekatuta gaudela uste duzu?**

Ez, asko falta da oraindik horretarako. Agian nire errua ere bada, nik neuk herria mugatzen dudalako. Hasiaran adibidez, kabinek edo gauza gogorragoek ez zutela herrian arrakasta izango pentsatu nuen eta ez nituen ipini, oraindik uste dudalako jendea ez dagoela prest. Dendak harrera ona du, egia da, baina gauza batzuetarako ez gaudela prest uste dut.

**- Kabinak kenduta, denetarik daukazu?**

Artikulu pilo bat izan nahi nuen denda eta hori lortu dut. Hala eta guztiz ere, beste denda batzuekin alderatuta, txikia da. Aurreko larunbatean, esaterako, Bilboko sex-shop batean egon nintzen eta euren ezkondu aurreko agurretarako saila, nire denda baino handiagoa zen. Nik, ezkondu aurreko agur-afarietarako ez daukat gauza gehiegi, orokorrean jendeak, oraindik ere, nahiago duelako Bilbora joatea.

**- Zein da arrakasta handiena duen produktua?**

'Bola-txina'k. Modan daude eta gainera seme-alabak izan berri dituztenentzat edo txizari eutsi ezin dionarentzat oso erabilgarriak dira, pelbiseko lurra indartzen laguntzen dutelako. Jarraian bibratzaileak daude.

**"Hiru hilabetetan,  
120 bibratzaile saldu ditut  
gutxi gora behara"**

**ILEAPAINDEGIA**  
*Izaskun*  
Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
48260 Ermua Bizkaia  
Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak  
aseguratuak  
**San Pelayo**  
aholkularitza  
fiskal eta juridikoa  
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**PUB YOMY**  
**Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean**

Mutilek, euren neskalaguntzako erosten dituzte eta neskek eurentzat edo euren lagunei oparitzeko. Mutilentzako bibratzaileak ia ez ditut saltzen: hiru hila-betetan 5 edo 6 saldu ditut, neskentzako, ordea, 120 inguru saldu ditut.

- **Aholkurik eskatzen dizute?**

Galdetu egiten diet beti. Lehenengoz erosten badute bibratzailea, leunenak eta berezienak eskaintzen dizkiet, silikonazkoak esaterako (plastikoa askoz ere gogorragoa delako). Beste alde batetik bibratzaileek zakilarren forma ez izatea garrantzitsua da, horretarako euren mutilen zakila dutelako.

- **Eta zer prezio dute?**

Denetarik dago. Berrienak 120 euro balio dezake (garestiagoak ere badaude, baina nik ez ditut dendan) eta badaude oso bibratzaile onak ere, debora luzerako eta funtzio bakarrarekin 5, 10 edo 13 euroren truke.

- **Bikoteak ere etortzen dira?**

Bai, asko gainera, estimulagailu eta estimulatzaileen bila etortzen dira batez ere.

- **Nongoa da etortzen zai-zun jendea?**

Gehienak Eibarkoak dira, baina inguruko herrietakoak ere badaude. Oñatitik, Bergararik eta Arrasatetik esaterako.

- **Sartzen den jendea lotsatu egiten da edo naturaltasunez egiten du berba?**

## “Sex-shopean sartzen den jendeari laguntza eskaintzen diot”

Bueno, sex-shopean sartzen den jendeari laguntza eskaintzen diot. Batzuk begiratu nahi dutela esaten didate eta beste batzuek, batez ere gai honetan hasiberriak direnean, niri galde-tzen didate. Nik argi eta garbi azaltzen diet dena, beti ere aurrean dudan pertsona errespetatuz. Horrela, gauzak hobeto ulertzen dira eta orain dela gutxira arte tabu zen gaia, normalizatuz doa apurka-apurka.

- **Eta erositakoarekin kalera irteten dira arazo barik?**

Poltsek gure logo eta telefonoa daukate bakarrik, baina hala eta guztiz ere, jendeak ez du poltsarik nahi. Pelikulak erosten badituzte, DVDA eraman eta kaxa hemen lagatzen dute, bibratzaileen kasuan gauza bera... Ez dute tiketik nahi, ezta poltsarik ere.

- **Egoera bitxirik bizi izan duzu?**

Denetarik dago: “Lagun batentzat erosiko dut”, “Nire laguna ez da ausartzen, horregatik nator ni. Niri ez dit lotsarik ematen, aurpegia ematen dut”... horrelako asko eta asko dago. Niri egia esanda berdin zait. Nik produktu bat saltzen dut, zelan erabili eta zaindu behar den azaltzen diot bezeroari eta hortik aurrera, norberaren erabakia da zelan eta zertarako erabili. Beste alde batetik, emakume asko begiratzera sartzen dira bakarrik, jakin-minaz, eta hori ere ondo dago.

- **Zure hurrengo pausua zein izango da?**

Aurreko astean webgunea ipini genuen martxan ([www.sexshop-erotik.com](http://www.sexshop-erotik.com)) eta publizitatea egiteko asmoa ere badut, denda eza-gutzera emateko inguruko herri guztietan.



Donostian egindako azken ExpoErotikus azokan, Rosana Natalia Zeta aktorearekin egon zen.

Dorleta Vidal

# Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21  
ERMUA

# solozabal tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33





# Euskararen erabilera plana

**M**allabiko udalak 2008-2012 urtietarako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu barri dau. Otsailien udalbatzak aho batez erabaki eban egitasmo honekin aurrera egite. Plan honen helburue hau da: Mallabiko herritarrek euskara normaltasunez erabiltzeko eskubidie izan dagiela Udalak eskumena dauken jardunetan.

Udalak bere esku dituen bitarteko guztiak jarriko ditu herritarrek eskubide hori gauzatu ahal izan dagian. Txostenien dinoenez hiru helburu estrategiko markatu dittue. Helburu estrategikuok izango dira helburu nagusia lortzen lagunduko dabena:

Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izatie.

Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izatie.

Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izatie.

Txostena burutzeko arlo desberdinetako datuek batu dira langiliekin batera. Ondoren, datuok aztertu eta datozen urtietarako proposamenak landu dira: txostena idatzi, Udalari aurkeztu eta adostu, Hizkuntza politi-

karako Sailburuordetzaren txostena jaso eta Osoko Bilkuran onartu eta neurri berririak martxan jarri.

Jarraipen Batzorde bat sortuko da eta haren gainien egongo da neurriok beteazteko ardurie.

Gainera, Mallabiko Udala UEMako partaide be badanez, teknikari bat izango da proposamenak betetzen laguntzeko eta aholkularitzie emoteko.

Justo Azagirre  
eta Pello Mugarza



Orraitiok 1. Batzar Orokorra egin eban otsailaren 14en

**ARTARRAI**  
**OPARI DENDA**



Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19  
ERMUA

**KRABI**  
Ilepaindegia  
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**



Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA

**BAGROS** Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...  
eta hostalarien umore ona*

**ORRAITIO EUSKARA ELKARTEAREN URTEKO BATZARRA**

Otsaillaren 14en Orraitio Euskara Elkartiek 1. Batzar Orokorra egin eban. Bertan, Itziar Garitagoitiak eta Maria Gonzálezek Elkarteak orain artean egindako ekintzen barri emon eban eta 2009rako proposamenak agertu zittuen. Bide batez, Mallabiko euskara zale guztiak gonbidatu zittuen Elkarte honetan parte hartzera. Ea ba mallabitarrok animatzen garien!

Bertaratu zirenen galderei eta kezkei erantzuna emon eutsien. Honenbestez batzarra amaitutzat emon zan.

Jarraian bazkarixe egin eban Trabakuko Goiko Tabernan.

**OKERRAK ZUZENTZEN**

Urtarrilleko alien, Mallabiko txondorra dala eta, bere arduradun nagusiaren izena emoterakoan, Julian Uriberi 'Otxandi' gatzizena jarri geuntzen, baina berez ez da Otxandi, 'Aramaixo' baiño. Okerrak zuzentzie gizalegezku da eta barkatu daigula gure hanka sartzie. Gogor jarraitu!

**TXISTULARI EGUNA**

Martxoaren 14en, meza ostien, Mallabiko Jasokunde elizan, Durangaldeko Txistularien Egune ospatuko da. Bertan, eskualde honetako txistularixek parte hartuko dabe eta eurei laguntzen Mallabiko Jasokunde eta Mendibil abesbatzak ikusi ahal izango ditugu. Jaialdixaren zuzendarixe Iratxe Uribelarrea mallabitarra izango da. Etorri eta gozatu.



**HOBBY SPORT**  
**HOBBY SPORT**  
**HOBBY SPORT**  
 Kirola - moda  
 48260 Ermua  
 Probaleku, 8  
 Tel. Fax: (943) 17 09 13

**MUGA**  
  
**KALORIK**  
 San Pelaio 4A behea  
 Telefonoa: 17 64 77  
 ERMUA

**AKADEMIA**  
**ERMUA INFORMATIKA**  
 TRESNERIA ETA OSAGAI  
 INFORMATIKOEN SALMEN-  
 Goienkale kalea z/g  
 Telefonoa (943) 17 90 38

**IZOTZ**  
**KONTELATUAK**  
  
 Ermuko Merkatua,  
 54 eta 55 postuak  
 943 17 41 01  
 Arrasateko Merkatua  
 943 77 05 98

**ELUR**  
 ESTETIKA-EDERGINTZA  
  

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**URRETA** burdindenda  

- ✘ *Etrea*
- ✘ *Tresneria*
- ✘ *Brikolaita*
- ✘ *Rielak*
- ✘ *Giltzak*
- ✘ *Zerrailgintza*
- ✘ *Kit altzariak*

 Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



## Yolanda Arrieta: “Esanen Aduanan, benetako komunikazioa garatzen saiatzen gara”

Miren Agur Meabe, Leire Bilbao, Yolanda Arrieta, Esther Gabiola eta Uritze Lakak, Esanen Aduanan ikuskizuna eskainiko dute martxoaren 17an arratsaldeko 19:30ean Lobiano Kultur Gunean. Emakumearen Udal Kontseiluak antolatu du ekitaldia martxoaren 8aren harira eta Korrika Kulturala egitarauaren baitan.

**- Zuen ikuskizuna honela definitu da. Testu irakurketa eta musika ekitaldia, literatura emanaldia, errezitala, poesia eta musika ekitaldia... Zuek nola definitzen duzue?**

Esanen aduanan ikuskizunean, badaude olerkiak, burutazioak, umeentzako eta helduentzako ipuinak... Esanak dira, asmo literarioarekin egindako esanak, guk idatzitako esanak. Era berean, emakumeak gara idazle eta musikari eta uneoro gaude mugimenduan, bidea egiten eta hor aurkitzen ditugu aduanak, mugak. Hori izango litzateke zentzu metaforikoa. Zentzu praktikoa da, egitura bat behar genuela gure testuak sartzeko eta horrelako ikuskizuna planteatu dugu, hitzak musikarekin uz-

tartuz.

**- Eskatuko banizu, ekitaldiaren deskripzioa egiteko. Alegia, bertaratuko denak jakin dezan zer ikusiko duen...**

Sartuko da aretoan eta argiak pizten ditugunean aurkezpen bat egingo dugu. Bost lagun gara, 3 idazle eta 2 musikari, emakumeak gara eta bostok Lea Artibain jaio ginen. Bakoitzak norbere burua aurkeztu beharrean besteei aurkeztuko du eta aurkezpen hori egin ondoren, idazle bakoitzak bere zati batzuk, bere esan batzuk irakurriko ditu beti musikaz lagunduta. Musika tartean egongo da, idazle batek bestera pasatzeko orduan ere musika egongo da. Bakoitzak, bere ahots propioarekin, bere izaerarekin, asmoekin, ezinekin, nahiekin eta mundua ulertzeko erarekin, bakoitzaren zatitxo bat eskainiko du.

**- Poesia eta narrazioak tartekatzen dituzue, musikaz lagunduta?**

Poesia gustuko duenarentzat bada, poesia dagoelako, baina poesiari beldur dion publikoarentzat ere bada, ipuinak ere badaudela-



ko. Eta euskaraz bidaiatzeko gogoia duenarentzat ere bada, denetariko testuak daudelako musikaz lagundurik beti. Horrez gain, ikusteko ere polita da gauza gutxi dugulako, baina iradokitzaileak direlako eta hortik aurrera ez dut gehiago esango...

**- Iazko Martxoaren 8rako eta Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluak antolatuta, Lea-Artibarako sortutako ekitaldi moduan antolatu zenuten lehenengoz?**

Ikuskizun hau berau ez genuen sortu. Lea Artibaiko hainbat artista -idazle, irakurle taldeak, musikariak, artista plastikoak, argazkilaria bat-, elkartu ginen, 20 emakume inguru eta bakoitzak bere arlotik bere ekarpena eginez eta guztia lotuz sortu genuen Irradaka ikuskizuna. Bertan, musika, hitza eta pintura uztartzen ziren eta Ondarroako Kafe Antzokian antzeztu genuen. Hori egin ondoren, Berrizko udalak proposatu zigun libu-

### OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan  
zabaltzen dugu

### Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com



ruaren egunean hori antzezteko. Kontua zen guk ez geneukala azpiegiturarik 20 lagun hara joateko eta antolatzeke nahiko zaila zela. Orduan, denok joan beharrean bi musikari eta hiru idazle joan ginen Berrizera liburuaren eguna ospatzera. Bakoitzak bere testuak aukeratu, musikariekin adostu eta horrelaxe sortu genuen Esanen aduanan ikuskizuneko lehenengo emanaldia.

**- Zuek sortutako testuak erabiltzen dituzue?**

Sormen propioa da erabiltzen dugun guztia, hiru idazleok lehendik sortutako idatziak dira, baina ez bereziki ikuskizunerako sortutakoak. Gure produkzioa berri ahala, ikuskizunerako testuak ere berri egiten ditugu.

**- Saio bakoitzean beraz, zerbait berria dagoela esan daiteke?**

Ikuskizuna egin ahala, testuak berritzen goaz, egoerara moldatzen goaz, egokitzen, geuk geure buruari beldurra kentzen. Geure artean elkarri entzuten eta aurrean dagonarekin ere ha-

rremana sortzen saiatzen gara. Hau da benetako komunikazioa garatzen eta benetako komunikazioa da momentua bizitzea.

**- Musikariak ohituago daude taula gainera igotzen, zuek idazleok, nola moldatzen zarete taula gainean?**

Leire Bilbao hiru idazleen artean gazteena da, baina bertsolaria izandakoa da eta Miren Agur eta ni hitzaldi eta eskola askotan ibilitakoak gara. Nik gainera antzerkia ikasi nuen, beraz, hori ari gara. Beldur gehien ematen duena da, norberaren testu bat irakurtzeak. Norberak sortu eta egindako hori ozenki irakurtzeak. Ez gaituzte hezi guk egindakoa besteei erakusten eta hori da niretzat zailena. Aldi berean aitortu behar dut goxoa ere badela.

**- Musika eta hitzez gain, espresio bide ezberdinak darabiltzazue taula gainean komunikatzeko.**

Hori ere ekinaren ekinaz ikasten ari gara eta gero eta gehiago erabiltzen ditugu eta zaintzen ditugu begiradak, keinuak, isiluneak, gor-

putz mugimenduak...

**- Zergatik nabarmentzen dira idazleen izenak eta ez horrenbeste musikariek?**

Hori da ipuinak idazten ditugunean ilustratzaileekin gertatzen dena. Hori hedabideetan egiten den zerbait da. Guk oso argi daukagu hitzak eta soinu maila berean daudela, garrantzi bera dutela eta boskotea garela. Testuak ez bezala, musikariek ez dute oraingoz musika ikuskizunerako sortzen.

**- Zer nolako musikak laguntzen ditu testuak?**

Esther Gabiolak eta Uritze Lakak musika sortu barik, musika ezberdinak interpretatzen dituzte. Esango nuke, aurkezpeneko idazle bakoitzak doinu nagusi bat duela. Gero, esan batetik besterako eta bakoitzaren esanak lagunduko dituen doinuak daudela eta isiluneak ere badaudela, hitzak eta musika bera bezain inportanteak direnak.

**- Esanen aduana, zuen aduana partikularra dela irakurri dut...**

Esanak dira partikularrak

eta aduanak dira batzuetan komunak eta besteetan partikularrak. Horrez gain, badaude aduana global legalak, politikoak, ideologikoak...

**- Ikus-entzuleek aduana horretan ez dute ezer deklaratu ezta dokumenturik erakutsi behar ezta?**

Ikus-entzuleak egin behar duena da ordubetez deskonektatu, mugikorrak itzali eta eskaintzen dugun barne eta kanpo bidaiatzat disfrutatu.

Alazne Aiestaran

## Martxoak 8

- Erakusketa.

2tik 18ra: Liburuak, diskak eta pelikulak.

Udal Liburutegian.

2tik 31ra: Txapak.

Emakumeen Topalekuan.

- Zinea:

5ean: Persepolis.

12an: La hamaca paraguaya.

19an: 53 días de invierno.

(22:15ean, Lobianon).

- Antzerkia:

6an: Negra-Teatro Meridional.

20an: Variaciones sobre Rosa Parks.

(22:15ean, Lobianon).

- Konzentrazioa:

8an: Orbe Kardenalaren

Plazan. 12:00etatik 13:30

era. Bazkaria, 14:30ean

(izena aldeztu aurretik eman behar da).

- Hitzaldia:

'Emakumeak aldaketa-eragile Rif lurraldean (Maroko)'. Hizlaria: Zohra Koubia.

Forum de Femme. Alhucemas (Maroko)

(19:00etan, Lobianon)

- Literatur emanaldia:

17an: 'Esanen aduanan'.

(19:30ean, Lobianon).



**TALAPARTA**  
ABERNA

ASTEBURVETAN  
BOKATAK, PINTXOAK  
ETA AFARIAK

OSASUNA ETA EDERTASUNA  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

Marfil

FISIOTERAPIA

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - behea

DO  
Mouth



**'ELEFANTE  
MAITEMINDUA'**

Txabi Arnal idazle ermuarrak haur-literaturako 11. liburua kaleratu berri du, 'Elefante maitemindua'. Oker bildumaren 7. liburua da hau, 23 orri ditu eta 5 urtetik gorako umeei zuzenduta dago. Bere maitearen bila doan elefantearen historiaz gain, Koldo Torrearen marrazkiekin gozatu ahal izango dute umeeak.

**II. PIROPO  
LEHIAKETA MARTHAN**

Eguneroko jardueran euskara zabaltzeko asmoz Euskara Sailak bigarren piropo lehiaketa antolatuta du. Bi maila egongo dira, 14-17 urte bitartekoa eta 18 urtetik gorakoentzat eta baita sari 2 ere: 100 eurotako txekoa gazteenentzat eta bi pertsonentzako saioa La Perlan nagusienentzat. Liburutegian, Udal euskaltegian, Kaltxango AEK euskaltegian, DBH ikastetxeetan edota euskara@udalermua.net helbidean aurketzuta ahal izango dira mezuak, martxoaren 11a baino lehen.

**DEBEGESAK, 6  
ENPRESA ERMIAN**

Debegesako Enpresa-proiektu Berrientzako Laguntza-zerbitzuak 44 enpresa berri eratzten lagundu zuen 2008an: 20 Eibarren, 10 Elgoibarren, 6 Ermuan, 3 Mutriken eta Sorluzen eta 2 Deban. Denera, 200 kontsulta jaso zituen Zerbitzuak 2008an, Debegesako egoitzatik nahiz [www.debegesa.com/ekintzailak](http://www.debegesa.com/ekintzailak) saretik bideratuak. Debegesaren laguntzarekin martxan jarri diren enpresen biziraupen tasaren batzbestekoa %87koa da.

**'Bertako Bilduma', batze bidean**

Udal liburutegiak Ermuari buruzko argitalpen desberdinen biltze eta katalogatze lanetan dihardu. Miren Torrealdai eibartarra, antropologoa eta artxibistikan aditua da 'Bertako Bilduma - Colección Local' deiturikoa sistematizatzearen arduraduna. Bildua izateko irizpidea da, Ermua herri moduan edo ermuar batek idatzi zein ekoiztutako edozer izatea. Euskarri ugari ari dira azaltzen: liburuak, aldizkariak, argazkiak, CDak, bideoak, audio grabaketak, marrazkiak... Material benetan heterogeneoa eta teknikoki trataera desberdina eskatzen duena. Honi aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Liburutegien Zerbitzuarekin elkarlanean, katalogatzeko protokolo bat sortu dute. Liburutegiak argi du honetan zein den bere eginbeharra: jaso, gorde eta erakutsi. Azken finean, erabiltzaileen esku geratu da bildutakoaren erabilera, beti ere ahaztu barik Bilduma aberasteko herritarren ekarpena oinarria dela.

**Gizarte-laguntza zerbitzuak Izelaietan  
elkartuko dira**

Martxoaren hasieran nagusien egoitza zabalduko da Abeletxen. Beraz, Izelaieta 23an dagoen Eguneko Zentroa Abeletxera lekuz aldatuko da. Izelaietako lokalean (Mendiola Jatetxea eta Jubilatuen egoitza artean), beraz, gaur egun herriko puntu ezberdinetan eskaintzen diren gizarte-laguntzako zerbitzuak bateratzeko asmoa du Udalak (arazoak dituzten ume eta gazteei zuzendutakoak, gizarte-bazterketako arriskuan daudenak, arazo ekonomikoak dituztenak...). Eraikinak 300m<sup>2</sup> ditu eta 3 solairutan banatuta dago. Gizarte-zerbitzuak bertan eskaini ahal izateko egokitze lanak egin beharko dira eta hauek 298.000euroko aurrekontua izango dute. Irailerako dena prest egotea aurreikusten da.

**Uni Eibar-Ermua software librea bultzatzen**

laz bezala, Uni Eibar-Ermuako informatika irakasleak, Bizkaia eta Gipuzkoako institutueta software librea bultzatzeko hitzaldiak ematen ari dira. Momentuz, Arrasate, Zumaia, Ermua, Eibar, Ondarroa, Mutriku eta Markinan egon dira. Ermuan, Ongarai Eskolan eta Anaitasuna Ikastola-Institutuan (argazkian) egon dira eta bertan, software librea erabiltzeak dakartzen abantailak azaldu dizkiete ikasleei, Windows sistema erabiltzea ez dela derrigorrezkoa azpimarratuz. Hitzaldietan zenbait kontzeptu eta pertsona entzutetsu aipatzeaz gain, ikasleek parte-hartzea sustatzen da punta-puntakoak diren gaiak jorratuz. Iaz inguruko 12 institutueta hitzaldiak eskaini zituzten irakasle hauek eta aurtengo marka hori gaunditzea aurreikusten dute, Uni Eibar-Ermuako irakaslea den Gorka Guenagaren esanetan.



**ERA GUZTIETAKO MUTUA  
ETA ASEGURUEKIN  
KONTZERTATUA**

**ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA**

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

**Diputazio Eorbidia 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16**  
**Fax: 943 17 21 12 • e-mail: [indartu@euskalnet.net](mailto:indartu@euskalnet.net)**

## 60 ermuar Berbalagun egitasmoan



Euskararen erabilera sustatzeko Berbalagun egitasmoan, 59 lagunek parte hartzen dihardute pasa den urritik (iaz baino 10 gehiagok) eta hauek astero biltzen dira euskaraz berba egiteko. Egitasmo honen inguruan hainbat ekintza antolatzen da urtero. Horien artean, Hernaniko Sagardotegi batean bazkaria egingo da otsailaren 28an eta honetan edozeinek parte har dezake, nahiz eta Berbalagunen izena eman dutenek lehentasuna izango duten. Honetaz gain, otsailetik

uztailera 8 ikastaro egingo dira: Gozogintza (otsailean egin da), Reflexologia (otsailaren 25 eta martxoaren 4 eta 11n), Barne Dekorazioa (martxoaren 16, 25 eta apirilaren 1ean), Makillajea (apirilaren 15, 22 eta 29an), Eskulanak (maiatzaren 6, 13 eta 20an), Masajea (maiatzaren 27 eta ekainaren 3 eta 10ean), Ile apaintzailatza (ekainaren 17, 24 eta uztailaren 1ean) eta Sabel Dantza (uztailaren 8, 15 eta 22an). Aipatutako ikastaroetan ere edozein ermuar apunta daiteke, euskaraz berba egiteko prest badago, jakina.

## Emantzipazio eskoletan parte hartzeko matrikula zabalik

Emantzipazio eskolako bigarren blokea martxan ipiniko da otsailean, Sexu-Heziketa eta Familia-Plangintzari dagokiona. Bertan, besteak beste sexualitatea, harremanak, bizikidetza unitateak eta arazo konponketa jorratuko dira eta 18 eta 35 urte arteko gazteei zuzenduta dago, gutxi gora behera. Klaseak hilean birritan izango dira eta apirilaren 28an bukatuko dira. Ikastaroaren prezioa 20 eurokoa da (15 euro ikasle, langabetu eta Gazte Txartela dutenentzat) eta izena emateko Lobianon dagoen Gazte Informazio puntura joan beharko da, edo [www.ermuagaztepuntua.com](http://www.ermuagaztepuntua.com) webgunean izena eman beharko da. Eskola honen lehen blokea 'Ekonomia, etxeko lanak eta erantzunkidetasuna' izan zen eta urritik otsailera garatu zen. Hirugarrena, berriz, maiatza eta ekaina bitartean burutuko da eta aisialdia kudeatzen ikasiko da bertan.

## 25.000 kontsulta Informazio Puntuetan



Herritarrentzako Informazio Puntuak 2007. urteko azaroan instalatu ziren, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiai herritarrei hurbiltzeko asmoz. Hauen erabilera handia da eta 2008an, 25.000 kontsulta baino gehiago egin ziren. Hauen bitartez 7000 SMS baino gehiago bidali dira eta herritarrak Interneten 6000 aldi baino gehiagotan sartu dira Interneten, 3720 aldiz Udaleko webgunean. Kiroldegian kokatuta dagoen puntua izan da gehien erabili dena (13.000 kontsulta) eta gutxien erabilitakoa Miguel de Unamuno zentroan kokatuta dagoena (2000 kontsulta), Ermuko Udaleko datuen arabera. Emaitzak ikusita, Informazio Puntu gehiago jartzeko asmoa dago herriko beste leku estrategiko batzuetan.

### POSTAL LEHIAKETAKO IRABAZLEAK TENERIFEN

Goiaz Minguezek eta Josu Yarzak, 2008ko postal lehiaketako irabazleak, astebete pasa zuten Tenerifen aurtengo urtarrilean. Euskal Birusak urtero antolatzen duten lehiaketa honen azken edizioan 60 lagunek hartu zuten parte (horietatik 15 Gazte Txokoa) eta bidaiatz gain, 350 euro eta 120 euro erosketa-txeketan banatu ziren guztira.

### EUSKAL BIRUSEKO KUOTAK

Euskal Birusak martxoan kobratuko die bazkideei aurtengo kuota. Horregatik helbideratze datuak aldatu dituzten bazkideek lehen bait lehen esatea eskertuko da. Era berean, Euskal Biruseko bazkide izan nahi dutenek, 943179350 edo [euskalbirusa@euskalnet.net](mailto:euskalbirusa@euskalnet.net) helbidera mezua bidali dezakete.

### HEO-EKO MATRIKULA ZABALIK

Otsailaren 26tik martxoaren 18ra bitartean egin ahal izango da matrikula, Internet bidez. Modu librean matrikulatzen den ikasleak, azterketa egin eta ziurtagiri ofiziala jasotzeko aukera izango du. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa dira aukeran dauden hizkuntzak, eta azterketak ekainean eta iraillean izango dira. Azterketa horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera mailakatuta daude: A2, B1, B2 eta C1. Informazio gehiago [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian.

**QUETZAL**  
gazte denda  
Baietz topatu gustuko zeozer?  
Goienkale 9  
943 17 00 65

**Proba-Leku**  
Neopaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

  
URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
ERMUA

  
**CITROËN**  
AUTOS AMEDI  
Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14



# Juan Torres Lehiaketan 24.000 euro saritan

**E**rmuko Udalak, 'Juan Torres Enpresa Proiektu eta Ideia berritzaileen lehiaketaren IV. Edizioa' martxan ipini du. Hau, atal ezberdinetan banatuko da:

- Ideia berritzaile eta sartzaitaileak: DBHko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa

Zikloko ikasleei zuzenduta dago. Maila bakoitzean bi sari emango dira, 2.000 eta 1.000 eurokoak.

- Enpresa proiektuak: enpresa martxan ipini nahi duenak parte har dezake eta bi sari banatuko dira: 9.000 eta 3.000 eurokoak.

- 1. Teknologia-lkerketen

Proiektuen azoka: Ekimen berritzaile honetan teknologia-ikerketetan lan egiten duen guztiak parte har dezake. Sariak 2.000 eta 1.000 eurokoak izango dira.

Kasu guztietan, proiektuak aurkezteko azken eguna martxoaren 5a izango da.

Lehiaketa, Toki-Garapena-

ren Astearen barruan kokatuko da eta honen helburu nagusia, "inguruko gazte eta ikasleen ideiak arlo ekoizleri hurbiltzea da", Udalaren arabera. Martxoaren 10a eta 13a bitartean burutuko dira jardunaldi hauek, eta bertan erakusketak eta ekin-tzaile-tailerrak egongo dira, besteak beste.

Aurten, gainera, berritasunak egongo dira DBHko lehenengo kurtsoetarako, euren zuzendutako zientzia-zinako emanaldiak egingo direlako eta bertan pelikuletan dauden oker zientifikoak topatu beharko dira.

Dorleta Vidal

## Gazteria Saileko memoria

Udaleko hainbat sailek 2008an burututako ekimenen memoria aurkeztu dute dagoeneko. Tartean, Gazteria Saileko memoria. Hona hemen euren jardueren laburpena:

- Gazteria Planaren barruan, lau irteera egin ziren 2008an eta horietarik 2 elurretara izan dira, Candanchu eta Formigalera. Irteera horietan 18 eta 25 urte bitarteko 53 lagunek parte hartu zuten.

- Herriko musika taldeak indartu nahian, entseguetarako lokalak eraikitzen ari da Udala Betiondon eta 2009a bukatu aurretik lokalak martxan egotea aurreikusten da. Bitartean, azken 10 urteetan bezala, Udalak talde horien alokairua ordaintzen du Legarreko lokalatan.

- 3. Vertigorrock jaialdia egin zen 2008an eta Udalak 7.700euroko dirulaguntza eman zuen horretarako.

- Udako argazki lehiaketa eta erakusketa egin zen.

- Hilero gazteen 32 lokaletara eramaten da gazteei zuzendutako ekin-tzen egitaraua.

- Uztailean, 11 eta 13 urte eta 15 eta 19 urte bitartekoei zuzendutako Batuka, Hip-Hop eta Akrobazien ikastaroak antolatu ziren.

- Ongaraiko Skatepark-a inauguratu zen eta II. Urban Gazte Jaialdia egin zen plazan.

- Urrian, Emantzipazio Eskola martxan jarri zen eta otsaitetik aurrera eskolaren 2. blokea hasiko da.



*Euskara eta euskaltegia egin biak zureak*

**UDAL EUSKALTEGIA**

Teresa Murga, 2. solairua  
Tel. 943 17 09 25

**OINAK**

**LEIRE MAYORA**

**PODOLOGOA**

San Pelalo 8C, behea  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**HORTZklinika**  
nerea iñiguez

San Ignazio, 4 ERMUA  
943 03 05 12

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

**EGAÑA**

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**MUSIKA ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpetea
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com





Inauteriak 2009  
eta Hartza Eguna





- **Mallabian oso ezaguna zara...**

Jende askok ezagutzen nau. Ez dut arazorik jendea agurtzeko eta tartarren bat bada, adarra jartzeko ere.

- **Ikasteko aukerarik izan zenuen?**

18 urte izan arte, Mallabiko ikastetxean ikasi nuen eta geroztik Matienako Txibila lantegian nabil lanean.

- **Gustura zabilta?**

Lan polita da baina ez dut uste merezi beste ordaintzen didatenik.

- **Eguna luze egiten zaizu?**

Goizeko 7etan ateratzen naiz etxetik eta arratsaldeko 6etarako etxean egoten naiz. Neguan egunak laburragoak izaten dira.

- **Zer izan nahi zenuen handitzean?**

Toreroa, 'El Juli' gustatzen zait.

- **Athletic-zale amorratua zara...**

Gela osoa pankartaz eta argazkiz beteta daukat. Athletic betidanik izan dut bihotzean.

- **Aurten badirudi talde sendoa dela...**

Talde indartsua da aurteongoa. Kopan final erdietara iritsi eta ligan ere lan polita egiten ari gara.

- **San Mamesera joaten zara?**

Bai, sarritan joaten naiz. Asko gustatzen zait nahiz eta zaletuek beraien oihuekin zarata handia



**Mallabitarra. 3 arreba dauzka eta bera da seme alaben artean bigarrena. Athletic-zale amorratua, Athletic darama ahoan eta bihotzean. Irribarretsua, lagunzalea eta hiztuna, nahiz eta konfiantza izan bitartean ez duen hitz jario luzerik. Pilotazalea ere bai, pilotaluko markagailuaren arduraduna ere bada.**

sortzen duten.

- **Futbolaz gain, zer gustatzen zaizu?**

Itxaso Praderarekin palan jokatzeko, zezenketak telebistaz ikustea eta aldika mendira joatea.

- **Zein da zure lagunik onena?**

Ritxi.

- **Mendi bat?**

Oiz. Hara joaten naiz sarri, Ritxiren anaia zen Alexen errautsak han zabaldu ziren-eta.

- **Jateko plater bat...**

Babarrunak gustatzen zaizkit.

- **Zer moduz konpontzen zara zure arrebeekin?**

Oso ondo.

- **Ezagutzea gustuko zenukeen pertsona hori?**

Carlos Gurpegi.

- **Athletic-eko historian izan den jokalaririk onena?**

Bi esango dizkizut: Julen Guerrero eta Isma Urzaiz.

- **Oporretan nora?**

Gurasoak Zamorakoak eta Burgosekoak dira eta sarritan hara joaten gara.

Dena den, Mallabian egoten naiz gustura.

- **Musika talde bat?**

Kupela.

- **Opari bat?**

Athletic-arekin lotura duen edozer: erlojua, oinetakoak...

- **Maitasunerako tarterik izan duzu?**

Izan nuen neskalaguna, Libe izeneko neska bat. Haserretu ginen eta amaitu zen gure artekoa.

- **Pilotatokian ere markagailuan ikusi izan zaituzte...**

Gustuko dut pilotalekuko markagailuan arduradun gisa aritzea eta erraz egiten dut lan hori.

- **Julian Retegi pilotaria ere ezagutu zenuen?**

Pertsona jatorra iruditzen zitzaidan.

- **Pilotari bat?**

Titin III.

- **Zein da zure bertute nagusia?**

Jendearekin irekia naizela.

- **Akatsen bat?**

Athletic-ek galtzen duenean asko haserretzen naizela.

- **Mugikorra ere erabiltzen duzu...**

Deiak jaso eta egiteko ere erabiltzen dut, halerre nahiago dut norbaitek niri deitzea.

- **Athletic noizko txapeladun?**

Oso zaila dauka kontua, beste taldeekin alderatuz talde apalagoa da gurea. Messi ekartzetik bagenu akaso...

Asier Ibaibarriaga

# JULIAN NUÑEZ

 **SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA**

**San Roke, 24-behea**  
**Informazioa: 943 74 85 93 edo 685 72 21 31 (Idoia)**

**Zubiaurre 14**  
**Telef. 943 17 28 88**  
**48260 ERMUA**

**EGUZKILORE**

# Saskibaloiaaren aro berria

**1**0 urte beteko ditu aurten Ermua Basket saskibaloia taldeak. Halere, ez dago bere sasoirik onenean. Makina bat jokalarik bertatik pasa ostean, jende premia larritz dabilta eta horregaitik, etorkizuna bermatzeko, deialdi zabala egin dute jendea erakarri eta zuzendaritza sendo bat osatu asmoz. Egun, taldeko lehen-dakari, entrenatzaile eta jokalarik den Miguel Angel Sanchezekin egon gara.

**- Aurten 10 urte taldea sortu zela...**

Saskibaloia gustuko genuen 12 pertsonako talde batek sortu genuen Elkartea. Urteekin gauzak asko aldatu dira. San Pelaioko kantxan hasi ginen, ondoren kiroldegia egin zuten, momentu honetan Bizkaiko instalazio onenetarikoan jokatzen dugu.

**- Zer nolako ibilbidea izan duzue?**

40 lagunetik gora pasa dira taldetik. 4 entrenatzaile izan ditugu... Oso balorazio ona eginen dugu oro har. Bigarren regional mailan abiatu ginen eta Preferente mailako bigarren mailan ere aritu ginen. Ondoren berriz jaitsi ginen eta azken urteotan sarritan jokatu ditugu igoera faseko partidak. Gorengo postuetan aritu gara eta talde sendoa izan dugu.

**- Bazkideak, laguntzaileak izan dituzue...**

50 bazkide izatera ere iritsi ginen. Karteletan makina bat merkatarik eman izan digute babesa. IMD ere gurekin egon izan da.

**- Gaur egungo egoera bestelakoa da...**

Urte gogorra izaten ari da. Iaz ere jendez urri ibili ginen

eta taldea osatzeko arazoak izan genituen. Aurten arazoak asko larritu dira eta zenbait partidutan ez dugu taldea osatzetik izan. Gauzak aldatzeko ordua dela erabaki dugu.

**- Ze asmo dituzue?**

Lehenik eta behin, deialdi zabala egin dugu, Ermuko eta inguruko herrietako gazteriarik begira, saskibaloian jokatu nahi duen orori gonbitea luzatuz. Bestetik, saskibaloia taldeari laguntzeko gogoia nahi duen orori ere atea ireki dizkiogu entrenatzaile edo zuzendaritzan parte har dezan. Ikastetxeekin ere lankidetzak hitzarmenak sinatzeko asmoa daukagu saskibaloia zabaltzeko eta harrobi lana indartzeko. Horrez gain, herrian saskibaloia hedatzeko asmoa dugu, udaran aire librean txapelketaren bat antolatuz.

**- Jaso dituzue deialdiaren**

**lehen erantzunak...**

Momentu honetan 14-15 urte bitarteko hamar gazte daukagu. Asmoa, infantil, cadete edo jubenal mailako taldeak osatzea da eta infantil mailako harrobia lantzen hasi. Gazte horien gurasoak ere erakartzeko asmoa daukagu, beraien seme alabak saskibaloian jokatzeaz gain, zuzendaritzan ere inplikatu daitezten. Horrez gain, saskibaloiko entrenatzaile izateko ikastaroak ere izango dira daukagun hutsune horiek betetzeko.

**- 10.urren ospatzeko zein ekitaldi antolatu dituzue?**

Taldetik pasa diren jokalarik eta entrenatzaileak elkarrekin eta partidu bat egingo dugu eta bazkari batekin borobilduko dugu eguna.

**- Gure inguruko herrietan zein da saskibaloiaaren egoera?**

Eibarren 2 talde daude, beste bat Zaldibarren eta Elgoibarren. Indartsuenetakoa, Durangon dago. Euskal Herrian lur-bentia, TAU eta Bruesa daukagu. Saskibaloia indartsu dago, urte askotan egindako lanaren fruituak ikusten ari gara.

**- Besterik?**

Jendea guregana etortzeko animatu nahiko nuke. Gurean saskibaloia maite eta gozatu nahi duen orok atea zabalik aurkituko ditu. Garrantzitsuenak, saskibaloia maitatzea eta gustora jardutea da. Informazio gehiago <http://ermuabasket.blogspot.com/> webgunean aurkituko du.

Asier Ibaibarriaga



## Ardo banatzaileak:

Riedel  
Avgstvs  
Clos Mogador  
Yllera  
Cantosán  
Luis Cañas

Hugel&Fills  
Anima Negra  
Irache  
Cillar de Silos  
Vriego  
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**  
TELEFONOA: **943 17 60 75**


## Pub Dakota



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
[dakotaermua@hotmail.com](mailto:dakotaermua@hotmail.com)



Argazki hau 1970-1972 inguruan aterata dago Mallabiko plazan. Bertan agertzen direnak: Ikurriñarekin: Justo Azagirre eta Iñaki Mallabiabarrena. Goian: Pako Aranburu, Santos Aranburu, Pedro M<sup>e</sup> Aranburu, Eloi Zelaieta, eta Joseba Idigoras. Behean: Emilio Txurruka, Jose Manuel Astarloa, Santi Uzuriaga, Rafael Osa, Enrike Uzuriaga, Eugenio Aranburu 'Txo', eta Sabin Gisasola. Jarrita: Jon Idigoras, Felipe Azagirre, eta Bixente Azagirre.



# 1970-72 (MALLABIA)

# (ERMUA) 1980



Inauteriak, 80. hamarkadan ater- atakoa.  
Zutik (ezker-eskuma): Iñaki Elgea, Julian Ortuzar, Iñigo Arrizabalaga, Asier Iturriagaitia, Ander Idigoras, Norberto Madinabeitia. Eserita (ezker-eskuma): Juan Manuel Azurmendi, Juan Daniel Mendizabal, Iñaki Azurmendi. Etzanda: Luis Mari Malasetxebarria, Roberto Bilbao, Sixto Iturriagaitia.

## "MENDIOLA" Jatetxea

Erdikokale, 19  
Tfno. (943) 17 22 43  
ERMUA (Bizkaia)

EGUNEKO  
MENUA  
ETA KARTA  
ERARA

## DROGETENITURRI

**943 17 93 50**

**Elexoste**

Euskal  
Birusa  
Elkartea





**Martxoak 14**  
Zorionak Alaitz!!! Ondo pasaixu! Dagoeneko 27 urte! 27 mosu eta 28 belarri tira-kada!!! preparau belarrixekek. Zeure lehengusinen partez!!



**Otsailak 24**  
Zorionak amama Pili!!! Zure biloben partez, musu handi bat!!!



**Otsailak 23**  
Zorionak tia Arantzi!!! Zure iloben partez, musu eta besarkada handiak zuretzat!!



**Martxoak 31**  
Zorionak Eneko!!! Dagoeneko 3 urtetxo!!!! Urtez urte gero eta handi, guapo eta bihurri-xau!!! Ondo pasaixu!!!! Mosu pilue!! Zeure amabitxi.



**Otsailak 28**  
Zorionak Irati zure 2. urte-betetzean!! Etxeko guztien partez!




**Otsailak 22**  
Zorionak Janire!! 11 urte bete dituzulako. Muxu handi bat familiaren partez!



**Martxoak 26**  
Zorionak Lierni, Joneren partez. Muxu handi bat!!!



**Martxoak 5**  
Maitane, 12 urte beteko dituzu!!! Muxu handi bat potxola!!! Zure aita, ama eta Arantzazu.



**Martxoak 16**  
Zorionak Mikel eta Marisol eta muxu handi bat laguneren partez!



**Martxoak 14**  
Amabitxi, amabitxi!!! Zorionak!!! Zenbat urte? Ondo pasaixu zeure urtebetetze egunien. Patxo pilo potoluek zeutzako!!! Zeure besuetakue.

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia [drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com) helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu. Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, drogeteniturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak. Bidali helbide berdiner.

**HO E I**  
**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
Jardinetan, 3 - Eibar

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
2008/2009  
**MATRIKULA LIBREA**  
Otsailaren 26tik martxoaren 18ra  
**ALEMANA, EUSKARA, FRANTSESA ETA INGELESA**  
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) orrian.  
Argibide gehiago: [www.eoieibarheo.net](http://www.eoieibarheo.net) orrian edo 943200618 telefonoan.

**optika itze**  
✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA  
**Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51**

**Senén**  
[www.joyeriasenen.com](http://www.joyeriasenen.com)

**MALLA ileapaindegia**  
  
Probaleku 8, behea © 943 17 18 50





## Zergaitik zeloak?

**Ane Saénz**

**PSIKOLOGIAN  
LIZENTZIATUA**

**Z**eloak. Maiz erabiltzen den kontzeptua da zeloena, baina zer diren ondo al dakigu? Noiz gara jeloskor?

Garrantziko harreman batean beste pertsona galtzeko edo berak ematen digun segurtasuna galtzeko arriskua ikusten dugunean sortzen den erantzun emozional eta konduktuala da. Segurtasun horren galera hirugarren pertsona batek edo egoera berri batek eragin dezake; lagun batek beste pertsona bat ezagutzeak edo herritik kanpo lanera joateak adibidez.

Askotan zeloak bikote ha-

rremanekin eta anai-arreben arteko harremanetara mugatzen badira ere, bizitzako edozein esparrutan agertu daitezke. Gizaki guztiok sentitu dezakegu emozio hau arestian aipatu den egoeran aurkitzen bagara. Baina, Zergaitik egoera beraren aurrean ez gara denok jeloskor sentitzen? Izan ere, berezko emozioaz gain beste aldagai batzuk badute zer esanik gure jeloskortasunean.


Alde batetik, jaso dugun hezkuntzak eragin handia dauka gure portaeran; jeloskortasunean nola ez. Jabetza pribatuan hezi gaituzte eta hau islatu egiten da beste pertsonetikiko dugun harremanean, alegia, beste pertsonetikiko dugun jabetza sentimenduan.

Bestetik, aurretik izandako esperientziek zer esan handia daukate. Aurreko bikoteekin bizitako porrotek, adibidez, gainontzeko harremanetan konfiantza eza izatea eragin dezakete.

Heziketak eta aurretik gertatutako esperientziek gure jarreretan eta emozioetan duten eraginaren jakitun izatea ezinbestekoa izango da, jeloskor jartzen gaituzten egoera horiek hobeto ulertuko baditugu.

Jeloskor sentitzea ez da batere atsegina, eta maiz egiten denaren kontra beste pertsonarengan erantzukizun guztia jarri beharrean, gure burua aztertu beharko genuke sentitzen dugun emozio hau hobeto ulertzeko eta bideragarria egiteko.

**Zergaitik egoera beraren aurrean ez gara denok jeloskor sentitzen?**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua euskalduntzen



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian tokiko



**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**PRO**

- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA OSTIRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

# Jeloskorra zara? Zure bizitzako zein esparrutan? Zer egiten duzu horren aurrean?

Ez dut uste jeloskorra naizenik ez dut motiborik izan-eta. Agian lagunekin apur bat izan naitekeela sumatzen dut. Konturatzen naizenean, garrantzia kenduz egiten diot aurre.



**Aitor Arriaga. 41 urte. Langilea**

Uste dut apur bat baietz, guztiok dugu-lako jeloskor puntu bat. Izatekotan bikotearekin, baina egia esan ez dut orain arte arrazoirik izan. Inoiz zeloak sentitu izan ditudanean hausnarketa egiten dut.



**Nestor Fernández. 34 urte. Langilea**

Ez dut nire burua jeloskortzat. Arrazoirik eman ezean ez daukat zelorik ez bikotearekin, familiartekoekin ezta lagunekin ere. Agian batzuetan zeloak eta inbidia nahastu daitezke. Inbidia 'sanoa' izaten dudala aitortu behar dut.



**Roberto González. 42 urte. Langilea**

Lagunekin eta senideekin ez dut zelorik sentitu, baina bikotearekin bai eta aitortzen dut jeloskorra naizela. Horrela sentitzen naizenean haserretu egiten naiz nire buruarekin eta baita nire bikotearekin ere.



**Vanessa Marquez. 28 urte. Langilea**

Uste dut ez naizela jeloskorra eta sentimendu hori kontrolpean daukadala. Hau da, inoiz horrelako sentimendua izanez gero, hausnarketa egiten saiatzen naiz eta nire buruari esaten, ez naizela inoren jabe.



**Zuriñe Arrieta. 33 urte. Langilea**

Bai jeloskorra naiz nire nebarekin. Egia esan gaizki pasatu dut betidanik izan ditudalako zeloak. Gaur egun nagusiagoak izanda bai bera eta baita ni ere, saiatzen naiz arrazoia- ren bitartez zeloei aurre egiten.



**Agurtzane Rodriguez. 23 urte. Langilea**

Testua: Alazne Aiestaran

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak, telebis-  
tak, bideoak, musika,  
aparatoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

clinica dental

**San Pelayo**

hortz klinika

olivia Garcia Arrieta

San Pelayo 5, 1º

943 17 04 04

**Σ REMU**  
AKADEMIA

**ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!**

Diputazio, 15 - behea

943 17 01 88



## Haurrentzako zinea

**Hilak 1:**  
'Mi monstruo y yo'.

**Hilak 8:**  
'High School 3'.

**Hilak 15:**  
'La isla de Nim'.

**Hilak 22:**  
'El viaje de Teo'.

**Hilak 29:**  
'Colegas en el bosque 2'.  
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

## ZINE-KLUBA (emakume zuzendarien zikloa)

**Hilak 5:**  
'Persépolis'.

**Hilak 12:**  
'La hamaca paraguaya'.

**Hilak 19:**  
'53 días de invierno'.  
21:30etan. Lobiano Kultur Gunean.

## ANTZERKIA

**Hilak 6:**  
'Negra', Meridional Teatroaren eskutik.  
22:15ean. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 20:**  
'Variaciones sobre Rosa Parks', Cambaleo konpainia-ren eskutik.  
22:15ean. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 27:**  
'Ezker-eskuma', Gñu-Glu Produzioen eskutik.  
22:15ean. Lobiano Kultur Gunean.

## MUSIKA

**Hilak 14:**  
Blues Kontzertua: Álex TNT & Rick Perkins.  
20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 31:**  
Alboka Musika Eskolako Ikasleak. 19:30ean.  
Lobiano Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

## HAURRENTZAKO EKITALDIAK

**Hilak 7:**  
Haurrentzako ipuin-kontalaria: Ixabel Millet-ren eskutik. 17:30etan. Udal Liburutegian.

**Hilak 21:**  
Haurrentzako antzerkia: 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala', Txalo taldearen eskutik.  
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 28:**  
Haurrentzako antzerkia: 'Baserriko saltsa.'. La Baldufa taldearen eskutik. 17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 2tik 15era:**  
Margoak: M<sup>a</sup> Carmen Piriz eta Luis Agüera.

**Hilaren 23tik 28ra:**  
Ernesto Che Guevara: Argazki, liburu, pinturak eta abarreko bilduma. Antolatzaile: Komite Internazionalistak.  
Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara.  
Asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

## BESTELAKOAK

**Hilak 17:**  
Literatura emanaldia: 'Asenen aduanan'.  
19:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**Hilak 28:**  
Kubak Iraultzaren 50. urteurrena: hainbat ekitaldi. Arratsaldez eta gabez. Orbe Kardinalaren plazan.

Patxi Lopez

## Harategia



# M. LAZKANO

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

## OPTICA J. CASADO



Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

## MIGUEL Harategia



TXORIZOAK  
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

## hamburguesería TITANIK



*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83